

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

352

Ekainak 15, 2019

- 
- 2** Irun Atzo Irun Gaur
 - 3** Koadrilen Eguna
 - 4** Alarde tradizionaleko elkarrizketa
 - 6** Kontzertuak
 - 7** Jaietako ekintzak
 - 8-9** Jaietako programa historikoak
 - 10** Kirolak: San Pedroko Sari Nagusia
 - 11** Kirolak: Hipikako Jauzi Txapelketa
 - 12** Haurren lanak/ denborapasak
 - 13** Euskara Irunen barrena / Gazteen lanak
 - 14** Beti Gazte: Gazte Gunea
 - 15** Agenda

Argazkia: Estudio Gover

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



52491: Hatxeroen Eskuadra 1920ko hamarkadako alardearen edizio batean.
 G52487: Zalditeria Eskola kaletik 1920ko hamarkadako alardearen edizio batean.
 G52490: Kantinera eta Artilleriako Bateriako kideak 1920ko hamarkadako alardearen edizio batean.

“El Bidasoa” astekariaren 199. zenbakian San Pedro eta San Martzialeko jaien ospakizuna dira hizketa-gai nagusiak. Hala ere, astekariaren zenbaki berri honi “Thethe” kolaboratzaileak “Verdad” tituluarekin ipinitako gogoeta batekin hasiera ematen zaió. Ostean, “Txingudi”-k sinatutako ¡Ene Biotzoi! olerkiaren itzulpena ageri da. Jarraian, “Al chismoso del Bidasoa” tituluarekin, “RE-LA-MI-DO” astekariko kolaboratzaile aski ezagunak irakurle batek idatzitako gutunari erantzuten dio.

Lehen artikulu hauen ostean, hiriko jaien inguruko hainbat albiste irakur daitezke astekarian. Jaien inguruko “Dos palabras sobre el correcales” albistearen ostean, “Notas taurinas” albisteak jaietarako zezenketen programazioa errepasatzen du. “Corpus Cristi” tituluaren azpian, berriz, jai egunetan zehar hiriko elizetan egingo diren ekintzen errepasoa egingo da. Ondoren, “Carta abierta” tituluarekin astekariko zuzendariari hedabidearen lana goraiatuz idatzitako gutuna publikatzen da.

“San Marcial eta El Bidasoa” idatziaren bitartez, astekariko langileek hiritarrei jai egunak zoriontzen dizkiete. Kirol kronikan San Pedro egunean egingo diren kirol proba guztiak komentatzen dira, hau da, igeriketa nautika eta krosa. “Al margen del programa” atalean alardea eta Irungo festen etorkizunaz hitz egiten da. “Nota municipales” artikuluan, azken udal bilkurako erabakiak laburbiltzen dira. “Hace años ...” atalak berriz 1883 urteko maiatzean jazotako albisteen errepasoa egiten du.

Astekariaren zenbaki berri honen amaiera aldera, hiriko antzoki eta Lorea-Bidea pilotalekuko hurrengo egunetako programazioaren berri ematen da, jarraian, “Ecos de sociedad” atalean hiriko goi-klaseko biztanleen nobedadei arreta eskaintzeko.

Azkenik, Corpusaren eguneko kronika labur baten ostean, musika bandaren hurrengo kontzertua eta Aduan jubilatutako langile baten omenean antolatutako denbarkaria aipatu ostean, publizitate orrialdeari tartea eskaintzen zaio astekariaren zenbakia amaitu aurretik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)
Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinuaren eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Festa nagusituko da ekainaren 22ko Koadrilen Egunean



Urtero moduan, Betti Gotti elkarteak Koadrilen Eguna antolatu du aurten ekainaren 22rako. Herri Bazkaria izango da eguneko ekitaldi nagusia eta festa Ficobara mugituko da ordu batzuez. Bazkariaz gain, Olinpiadak edo musika-animazioek osatuko dute jai egun honetako egitaraua.

Koadrilen Egunaren barneko ekintzak goizean goiz abiatuko dira koadrilen arteko olinpiadekin. Eguerdiko 12:00ak aldera, Aunxa Trikiti eskolak eta Peña Poteo txarangak Alde Zaharreko kaleak girotuko dituzte 13:30etan kalejira Ficobarantz abiatu arte. Bazkaria 14:15etan hasiko da eta, bazkaria amaitu ostean, Ezten Giro taldearen eskutik dantzaldia egongo da. Azkenik, arratsaldeko 20:30etan Burrumba Elektrotxaranga Ficobatik irtengo da hirigunera itzultzeko kalejirarekin.

Aurreko urteetan bezala, Herri Bazkaria Ficobako 1. eta 2. pabilioietan egingo da, 3. pabilioian barra eta dantzaldia antolatzeko. Guztira, 1.800 pertsonentzako tokia izango da bazkarian, beti bezala, sarbidea adingabeentzat debekaturik egongo delarik. Bazkarirako sarrerak ekainaren 1 eta 2an saldu ziren eta, aurreko urteetako dinamika jarraituz, pabilioiak bi taldetan banatuko dira adinaren arabera: 24 urtetik beherakoak eta 24 urtetik gorakoak.

Prezioa ere 18 eurotan mantendu da eta sarrera bakoitzaren salmentarekin biltzen diren euro solidarioak Irungo Harrera Sarearentzat izango dira aurten. Gainera, bazkaria iragartzeko sortu den kartelean ikus daitekeenez, aurtengo zapiaren kolorea zuria izango da. Zapia eta lagun giroaz gain, errespetua ezinbesteko osagaia da ere ekitaldi honetan. Horregatik, antolakuntzatik egunean zehar bazkariko ticket salmentan zehar banatutako arau sinpleen betekizuna eskatzen da, bestela antolakuntzak, neurriak hartu beharko baititu. Hortaz gain, ekimen hau aurrera eramateko jende askoren laguntza beharrezkoa denez, inor era boluntarioan laguntzeko prest izanez gero, bettigotti@hotmail.com posta elektronikora idatzi eta antolakuntzarekin harremanetan jartzeko aukera izango du.

Lehiaketak berritzeko beharra

Aurtengo Koadrilen Egunaren barnean Olinpiadak izango dira Betti Gotti Elkartetik antolatuko den lehiaketa bakarra. Olinpiadak egun bakarrean egingo dira, hau da ekai-

naren 22an, baliabide eta jende faltaren ondorioz. Jolas batzuen bidez sailkapen orokor bat lortuko da, azkenik, hiru talde onenen artean finala jokatu eta talde irabazleak saria eskuratzeko.

Aurreko urteetan zehar antolatu izan diren lehiaketei dagokionez, azken urteetan lehiaketetako parte-hartzea murriztu ostean, formatuak aldaketaren beharrea dagoela ondorioztatu da. Arrazoi honengatik, aurten ez da bestelako lehiaketarik antolatuko, baina, Betti Gotti elkartetik datorren urteetarako lehiaketa berriak antolatzeko proposamenak jasotzeko prest daudela adierazi dute.

Bigarren bazkariaren proiektua

Ficobako bazkariaren gain, Betti Gotti elkarteak Herri Bazkaria hiriko erdigunera ekartzeko asmoarekin jarraitzen du, herritar guztiei bazkarian parte hartzeko aukera eman ahal izateko. Bazkari berri hau aurrera atera ahal izateko, ordea, Udalaren baimena eta kolaborazioa ezinbestekoak dira. Aurreko urteetan elkartetik egindako proposamenen ostean, udalak lehen aldiz baimena emateko pausoa eman du aurten. Honela, elkarteko kideek adierazi dutenez, Ospitale Zaharreko bazkaria gauzatzean egon da, baina, denbora kontrari izateaz gainera, ez dute inolako diru-laguntza ez azpiegiturarik jaso helburua gauzatu ahal izateko. Beraz, datorren urtean denbora eta laguntza gehiagorekin bigarren bazkari hau gauzatzeko aukera izango dutela espero dute Betti Gotti elkartetik.

Aurten egingo ez bada ere, elkartetik bigarren bazkari horren zehaztasunak ezagutzera eman dituzte. Bazkaria Ospitale Zaharreko eremuan antolatuko litzateke eta 200-300 pertsonentzako lekua egongo litzateke bertan. Irundar guztientzat pentsaturik dagoen bazkaria da, hau da, Ficobako profila betetzen ez duen jendeak, familiak, adindun eta bestelako giroa bilatzen dutenek bigarren bazkari honetan parte hartzeko aukera izango lukete. Ekintza eguerdiko 12:00etan hasi eta gaueko 21:00ak bitarteko iraupena izango luke, bazkariaren gain, trikitilariak, bertsolariak, Euskal Bingoa, antzerkia eta Euskal kantaldia bezalako ekintzak egingo liratekeelarik.



Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

2019 bizipen ezezagun eta ezberdinentzako urtea

2019 bizipen ezberdinentzako urtea izango da Paco eta Junkal Carrillorentzat. Izan ere, Paco Carrillo 2016tik dabil jeneral lanetan Alarde Tradizionalaren barnean, beraz, kargua aski menderatuta dauka. Aurtengoa, ordea, urte berezi izango da, izan ere, Junkal, bere alaba, Buenos Amigos konpainiako kantinera izango baita eta alardean parte hartuko du lehen aldiz. Biontzat 2019 urteko sanmartzialek ukitu berezia izango dute betirako.

Nola jaso zenuten aurten familian kantinera bat izango zenutenaren berria?

Junkal: Biak etxean geunden tinbrea jo zutenea. Atea nik ireki nuen eta atzera begiratu nuenerako mundu guztia negarrez zegoen jada. Aita nirekin zegoenez momentuan bertan jaso zuen albiste.

Paco: Hainbat urteetan kantineren etxeetara berri ona ematera joatea egokitu zaidanez egoera kontrolatzen nuela uste nuen, baina, beste aldean zaudenean ez du zirikurik. Une horretan bizipen asko etortzen zaizkizu burura eta horixe da hain zuzen ere alardearen esentzia, alardea sentimendu hutsa baita.

Aita jenerala izan baino lehen, nola bizitzen zenuten alardea etxean?

Junkal: Aita jenerala edo kapitaina izan baino lehen sanmartzialak etxean asko bizitzen genituen ere. Entsegu guztiak ikusten nituen, arma ikuskatzeak ere eta txikitatik San Martzial eguneko diana entzuteko altxatu izan naiz.

Nola bizi izan zenuen aita alardeko jenerala izango zela jakin zenuenean?

Junkal: Hasieran nahiko arraroa izan zen, azken finean, nire aita da eta arraroa egiten zitzaidan jeneral lanetan bera ikustea. Hala ere, zoragarria izan da.

Jeneral gisa, nola espero dituzu aurtengo sanmartzialak?

Paco: Sekulakoa izango da. Bakoitza bere zereginetan ibiliko da, baina, dena emango dugu alardea ondo egiteko. Hortaz gain, asko disfrutatuko dugula uste dut.

Egun berezi hauetan uneoro elkarrekin egoteko aukera izatea gustatuko litzaizueke?

Junkal: Ez, gauza bakoitzak bere momentua du, berak zaldi gaineratik biziko du eta nik leku ezberdin batetik ikusiko dut bera. Gainera, ondoan eramateko ezagun gehiago dauzkatz, hala nola, neba, lehengusuak eta osabak, beraz, haiek tartekatuko ditut.

Paco: Bai, apur bat, sekulakoa izango zelako, baina, aldi berean, ezinezkoa da pena bezala deskribatzea une horietan leku pribilegiatu batean egongo bainaiz eta espaloitik baino hobeto ikusteko aukera izango dut eta. Hortaz gain, ni sarjentua nintzenez eta bere ama kantinera atera zen urteko oroitzapen asko datozkit burura



Argazkia: Estudio Gover

eta beste era batera bizitzeko aukera izango dut.

Arma ikuskatzeen eguna, ekainaren, 29an, berezia izango da biontzat?

Paco: Nik gertatuko dena ez pentsatzea nahiago dut. Ziur nago momentua gozatua eta gauza zoragarria izango dela. Izan ere, nahiz eta asko pentsatu, gero gauzak beste era batera gerta daitezkeelako.

Junkal: Aitak bezala nik ez pentsatzea nahiago dut. Iku-siko dugu nolakoa izango den, baina, ziur nago une oso hunkigarria izango dela, gainera, lehen aldiz barnetik biziko dudanean da eta.

Aitak aholku edo gomendioaren batekin lagundu zaitu?

Junkal: Bai, aholku asko ematen dizkit, disfrutatzeke esanez, segituan pasatzen dela eta bizitzan behin bakarrik gertatzen delako. Bestetik, botak erabiltzeko edo antzeko bestelako aholkuak ematen dizkit ere.

Paco: Nik tarteka zerbait esaten dut, aukera dudanean, izaba eta lehengusinek uzten nautenean. Gainera, haiek nik baino hobeto egingo dute seguru.

Nola espero duzue alardearen amaiera?

Paco: Jai amaiera ikaragarria izango da eta seguru oroitzapen ahaztezin batean bilakatuko da. Amerikarrek esaten duten bezala, ekainaren 30a kalitatezko denbora izango dela uste dut irundar guztientzat, ez baita konturatu gabe pasako eta, horregatik, momentu horietaz disfrutatu behar dugu.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Eraikuntza, erreformak eta higiezin agentziekin loturiko zerbitzu guztiak topatuko dituzu Zumarpen



Argazkiak: Estudio Gover



Zumarpe duela 5 urte Billabonan martxan jarri zen higiezin agentzia eta erreforma eta eraikuntza enpresa da. 3 langilerekin hasi bazen ere, egun 35 langile baino gehiagok Zumarpe aurrera ateratzeko lan egiten dute. Irunen, zehazki, 2 urte eta erdi daramatza eta bulegoan Luis Mariano kaleko 4. zenbakian dute.

Zumarpe enpresak era askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu, hain zuzen ere, enpresaren zeregina hiru bloke nagusietan banatu daiteke: obrak eta erreformak, higiezin agentzietako salerosketa zerbitzuak eta ondare aholkularitza.

Obra eta erreformak aurrera eramateko arkitekto, arkitekto tekniko eta ingenia-

riak elkarlanean aritzen dira. Hortaz gain, enpresaren barnean gremio guztiak txertaturik izateak profesional ezberdinen arteko koordinazioa errazten du. Zumarpe enpresan erreforma eta birgaitze lanetan espezialistak dira. Gainera, Passivhaus sistemaren bitartez etxebizitzaren kontsumoa murrizteko apustua egiten dute. Bestetik, etxe adimentsuak eraiki eta bezeroen nahien arabera etxea automatizatzea bilatzen dute. Horretarako, Partners Loxone enpresaren sareko kideak dira eta Smart Home-an adituak dira, markaren ziurtagiriarekin.

Higiezin agentziek eskaintzen dituzten zerbitzuen barruan, berriz, etxe edo lokalen salerosketarako gestio zerbitzua dute

ere, etxebizitzaren erosketan unean aholkuak emateaz gainera. Erreforma beharrezkoa duten etxebizitzaren kasuan, iritzia eta obra aurrekontua prestatzen diete bezeroei, etxebizitza erosi aurretik. Matterport sistemari esker etxeak era digitalean bisitatzeko aukera eskaintzen dute ere. Hortaz gain, higiezin agentzia birtualetan etxebizitzak erakusten dituzte.

Ondare aholkularitza zerbitzuaren bitartez bezeroen zalantzak argitu eta ondasunen gaineko ikerketa eginez aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute.

Capuchinoseko promozio berria
Hondarribiko Amute auzoan Capuchinos komentuaren alboan etxe promozio berri

bat martxan jartzeko proiektuan lanean murgildurik dabil une honetan Zumarpe enpresa.

Usukoar Promociones SL izango da enpresa sustatzailea eta Zumarpe arduratu da etxebizitzak adimentsuak izateko teknologia hornikuntzaz eta etxebizitzak merkaturatzeaz.

Guztira, 24 "SmartHome" etxebizitza izango dira, 3 solairu izango dituen eraikin batean sakabanaturik. Etxebizitzek 2 eta 4 logela artean edukiko dituzte, garajea eta ganbarez gainera. Promozio berri honen inguruko informazioa gehiago Zumarpe enpresaren webgunean topatu daiteke.



USUKOAR PROMOCIONES, S.L.

24 Etxebizitza Hondarribian

2, 3 ETA 4 LOGELAKO "SmartHome" ETXEBIZITZAK,
trasteleku eta garajearekin.
Baxu eta atikoek terraza zabalak dituzte.

Informazioa:

667 81 68 58

www.zumarpe.com/capuchinoshondarribia



ZUMARPE

SALMENTA BULEGOA:
Luis Mariano Kalea 4, IRUN

2.555 hiritarrek parte hartu zuten jaietako kontzertuen hautaketa prozesuan



Irungo 2.555 hiritarrek parte hartu zuten jaietako kontzertuen hautaketa prozesuan. Bozketan Dancing Queen Abba, ETS - En Tol Sarmiento eta Green Valley izan ziren talde bozkatuenak, nahiz eta azken orduko arazoak dela eta, azkenean Rosario izango da estatuko talde gisa emanaldia eskainiko duen bakarlaria. Hortaz gain, talde lokalek kontzertu nagusien aurretik jotzeko aukera izango dute.

Lehen kontzertua ekainaren 22an, larunbatean, izango da. Dancing Queen Abba-ren kontzertua izango da, izan ere, 618 botoekin talde bozkatuena izan baitzen. Hurrengo egunean, ekainaren 23an, talde euskaldunaren txanda izango da eta, 665 boto izan ostean, ETS - En Tol Sarmientok girotuko ditu San Juan gauean Urdanibia

plazako inguruak. Estatuko taldea bezala Green Valley izan zen talderik bozkatuena bere emanaldiaren aldeko 453 boto bildu ostean, baina, kontratazio prozesuan sorturiko arazo batzuk direla medio, azkenean Rosario artistak ordezkatu du.

Aurreko urteetan bezala, Irungo Udaleko kultura arloak San Pedro eta San Martzial jaietako kontzertuetako taldeak hautatzeko prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan. Astebeteko epean hiritarrek 4 kategoria ezberdinetarako proposatutako taldeen artean bozkatzeko aukera izan zuten, talde bozkatuenak hautatzeko helburuarekin. Parte hartzea aurreko urteetan bildutako zifretan mantendu da. Hala ere, nabarmentzekoa da bozketan parte hartu dutenen %50a 30 urtetik beherako gazteak izan direla.

Udala estilo eta kategoria ezberdinetako 50 talderekin harremanetan jarri zen eta, lehen hautaketa burutu ostean, 30 proposamen aukeratu ziren Irungo hiritarrei eskaintzeko. Taldeek kontzertuen data libre izatea, aurrekontuaren barnean egoitea eta emanaldiak plazan eta sarrera kobratu gabe eskaintzeko prestutasun erakustea ezinbestekoa izan zen Udalaren eskaintzan sartzeko.

Talde lokalentzako tartea

Estatu mailako, talde euskaldun eta talde tributuaz gain, talde lokalek hiriko jaietan haien emanaldia eskaintzeko aukera izango dute ere. Hain zuzen ere, aurretik aipatutako talde nagusien aurretik emango dituzte talde lokalek haien kontzertuak. Hauek izan dira boto kopuru handiena bildu dituzten talde irundarrak: Yero Company (874), We (408) eta Left

Hook (406). Kontzertuen datak talde bozkitzaren estilo musikaren arabera banatuko dira.

Azken orduko aldaketak

Bozketan Green Valley izan zen talderik bozkatuena. Udala eta taldearen arteko kontratua izenpetzerako orduan, ordea, arazoak sortu ziren, izan ere, azken momentuan taldean udaletik proposatutako data beste hiri bateko kontzertuarekin okupatuta zutela konturatu baitziren. Data aldatu eta arazoarentzako konponbideak bilatzen saiatu ostean, azkenean, ezinezkoa izango da ekainaren 28an talde bozkatuenaren kontzertua mantentzea. Egoera hau dela medio, zerrendako bigarren talde bozkatuena hautatzea erabaki zen eta Rosario artista etorriko da estatu mailako artista bezala bozketan 389 boto eskuratu ondoren.

Kids&Us
school of english

the English Formula

Ingelesa urte Telik aurrera

Matrikulak Zabalik
*** 2019-20 ikasturtea ***

Kids&Us Irún - C/ López de Haro, 4 bap
T. 970 66 00 65-7 943 410 032 irun@kidsandus.es

140 ekintza baino gehiago San Pedro eta San Martzial jaien programaren barruan

140 ekintza baino gehiago biltzen ditu aurtengo San Pedro eta San Martzial jaietako egitarauak Irungo Udala eta hiriko entitate ezberdinen lankidetzari esker. Jaietako egitarauaren ekainaren 23tik uztailearen 1ra arteko jai egun ofizialetako ekintza guztiak biltzen dira, bezperako

asteburuan antolatutako ekintzez gain. Ekintzak hiriko auzo eta plaza ezberdinetara iritsiko dira.

Egitarauaren barnean bildutako 140 ekintzen artean, 72 Irungo udalarengatik antolatuak izan dira eta gainontzeko 68

ekintzak Irungo 49 entitateengatik prestatuak izan dira, horien barnean, Gazte-Guneak eta Kirol arloak antolaturiko ekitaldiak biltzen direlarik. Udaleko Kultura arloa arduratzen da jaietako programaren antolakuntzaz eta aurtengo aurrekontua 400.000 eurotako izango da.

berri baten lehen edizioa programaren nobedadeetako bat da.

Jaietako agur ofiziala ekainaren 23an egingo da gaueko 21:30etan. Udaletxeko balkoira Erreginaren Kopa irabazi zuten Realeko jokalaririk irundarrak igoko dira jaietako hasiera ofiziala emateko. Jaiak iragarriko dituen kartela, berriz, "Etorri eta ezagutu" izena daraman lan koloretsua izango da. Ane Eguiazabal Galan eta Alberto Calvo Jimenezen lanak botoen %56,39-a eskuratu zuen hiritarren bozketan. Azkesita, berriz, Angel Blanco Egoskozabalentzako izan da.

Ekitaldiez gain, haurrentzako atrakzioak Ficobako eremuaren aparkalekuan kokatuko dira aurten berriro ere, egun desberdinetan Irungo hainbat auzoetan zehar aurrez aurre prestatuko diren ekintzez gain.

Kirol arloan, berriz, jaietako programaren barnean kirolarekin loturiko 30 ekintza baino gehiago daude. Horien artean, uztailearen 1eko pilota jaialdia ospatzeko Urantz frontoi berriaren inaugurazioa nabarmentzen da. Hortaz gain, xake txapelketa

*Jaietako ekintzen inguruko informazio gehiago 15. orrialdean (352. zenbakian).

MOLDATU HOME
KOPIAK BILKATU
HOME STAGING

MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA
ZURE ETXEBIZITZA AZKAR SALTZEAREN ABANTAILERAN pentsate duzu?

Guk bai, horrelakak dira:

- Komunitateko gastuak, argia, ura, gasa, IBI eta b. ordaintzean utziko dituzu...
- Etxea eredu nahian zabalizan bitartean sortzen diren obrak ez dituzte eragingo,
- Prezio hobereenen sailtuko ditugu. Zure etxea oso ikusita badago merkatuan, erosi eta berriro "prezio justuko" aukera badakizu. Baina puntu guztien artean inportanteena da salmentako arazoa burutik azkar kenduko dituzula eta gehien inportantea zaituzten gaitasun pertsonala izuli zaituzteko.

661875785 (Urtzi) 656748202 (Encarni)

MOLDATU HOMEN adituek gara HOME STAGING bidez, zure etxebizitza azkar eta prezio egokian saltzen laguntzen dituzte.
Ordinarengatik 4 etxeren bidez beste salmenta denbora 16 egun baino gutxiagokoa izan da. Utzi izapuzki esplikatzeko nahi egiten dugu lan!
Zel gaitzazu gure telefonotara edo idatzi info@moldatuhome.com emailera eta hurbiltu zaitaz gure Irungo bulegora, Jose Ramon Agirretxe Alkorta, 1 plaza (Irungo kasinaren aldean).

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2 (atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

NATUR HOUSE

18 urte baino gehiagoko esperientzia

Eliza kalea, 2 (San Juan), IRUN - 648 183 466

asesoria BAER S.L.


Iparalde Hiribidea 3, Irun.
Telefonoa: 943 63 99 97

Junkaltxo
MAKOTTE JANARIAK

Janaria eramateko prest

Bias de Lezo, 22 - behe IRUN
Tel 943 61 36 70

Hiriko jaien bilakaera jaietako programen bitartez kontaturik



Irungo Udal artxiboan 1906 urtetik aurrera argitaratutako San Pedro eta San Martzial jaietako programen azalak eta egitarauak biltzen dira. Programa horiek, hamarkadaz hamarkada aztertuz gero Irungo jaiak izan duten bilakaera aztertu daiteke.

1919 urteko jaietako programak marrazki koloretsua darama portadan eta ekainaren 28tik uztailearen 1eko jaiegunetako ekintzak biltzen ditu. San Pedro eguneko diana, Villarrobleko diana eta ekainaren

1eko Abere lehiaketa gaur egungo jaietako programara arte mantendu diren ekintza gutxietako batzuk dira. Hortaz gain, zezenketa, hiriko pobreentzako bazkaria eta isiltasunerako deia programan ageri diren gauza bitxienetako batzuk dira. 1929 urteko programak, ordea, kolore gutxiago du eta publizitate kopurua nabarmenagoa da. 1939 urtean, Gerra Zibilaren arrastoekin, orokorrean ekintza gutxiago dakartzan programaren azalean "Garaipenaren urtea" irakur daiteke. 1949 urtean jaietako programara kolorea itzult-

zen da eta pixkanaka dantza eta bestelako ekintzak berreskuratzeaz gainera, programa uztailearen 2ra arte luzatzen da.

1959 urtetik aurrera koloretako ilustrazioak ikus daitezke programaren orrialde guztietan. Hortaz gain, programaren barnean ekainaren 23ko San Juan bezperako ospakizunak eta beste zenbait egun sartzen dira. 1969 urtean, berriz, koloretako argazkiak ageri dira lehen aldiz programan eta boxeoa, judoa, harri jasotzaileak, ... bezalako kirol ekintza berritzaileak

ageri dira. 1979 urteko programaren no-bedade nagusia azalean marrazki bat ageri dela da, barnean, gainera, kantine- ren argazkiak eta egitaraua lehen aldiz euskaraz zein gazteleraz irakur daiteke.

1989tik aurreko jaietako programek egungo programarekin antzekotasun handiak daukate bai orrialde kopuruan zein egituraren aldetik, batetik bestera diseinu kontu txiki batzuk ageri direlarik.



AUNTXA TRIKITIXA ESKOLA TRIKITIXA ETA PANDEROA

5 urtetatik aurrerako haur eta helduentzat zuzenduta
Irakasteko metodo desberdinak:
Zenbakiz osatutakoa, aurrez-aurre, solfeo

Aldabe Mendia Kalea 31, Irún
943 61 88 39 - 615790510

www.auntxatrikitieskola.com
info@auntxatrikitieskola.com

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Jai herrikoiak

Erakunde ekitaldiak



Ezkontzak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Urteurrenak

**Gora Irún
Gora San Martzial!**

Ekitaldiak zuh nahi duzun erara
Zer behar duzu?



San Pedroko Sari Nagusiaren mendeurrena

San Pedroko Txirrindularitza Sari Nagusia San Pedro eta San Martzial jaien egitarauaren barneko kirol data esanguratsua da. Proba honek Irungo hirian duen garrantziaz gainera, estatu mailako txirrindularitzaren historiako proba zaharretako bat da, zaharrena ez bada. Aurten, gainera, gerra garaian izandako etenaldien ostean, proba honek bere lehen mendeurrena beteko du.

Irungo txirrindularitzaren historiak XIX. mendeko 80ko hamarkadakoak dira lehen txirrindularitza proben erreferentziak. Zehazki, Udal Artxiboan, duela 120 urte baino gehiago Urdanibiako Alamedan egiten ziren belozipedoen lasterketa informazioa aurki daitezke, beranduago, Shabaldiko belodromoan, egungo Zabaltza plazan antolatuko zirenak.

Urte batzuk geroago, 1888 urteko ekainaren 29an Zabaltza plazan belozipedoen lasterketa bat antolatu zen, non Paris, Burdeos eta Baionako lasterkariak parte hartu zuten. Proba hau estatu mailako txirrindularitzako zale-tuen kategoriaren barneko lasterketarik zaharrena dela uste da. 1896 urtean hiriko lehen txirrindularitza kluba sortu zen Irungo Txirrindulari Elkartearen izenaren azpian, Juan Iruretagoyena eta Gabriel Moleresen klub horretako presidentek izan zirelarik. Urte horretan, bitxikeria moduan, San Pedroko lasterketa ekainaren 28rako antolatu zen, ekainaren 29an egin beharrean.

Lehen klub horren bizitza laburra izan zen, 1901 urtean desagertu baitzen, nahiz eta XX. mendearen hasieran txirrindularitzak gorakada garaia bizi izan zituen arren. San Pedroko probaren antolakuntza beranduago sortu zen San Miguel Txirrindularitza Klubaren eskuetara pasa zen eta 1989 urtea arte mantendu zuen ardura hau. Betan, aipamen berezia merezi du San Miguel klubetik proba antolatzeko lan handia egin zuen Emiliano Gomezek, izan ere, bere lanari esker probak estatu mailan ospea irabazi zuen.

Egungo Irungo Txirrindulari Elkartea 1969 urtean sortu zen mugaren bi aldeetan txirrindularitza bultzatzeko helburuarekin eta Luis Mari Ausán klub berri honen lehen presidentea izan zen. San Pedroko lasterketaren antolakuntzaz arduratu da 1989 urtetik aurrera, Luis Mari Ausan klub berri honetako lehen presidentek azaldu duenez, "San Miguel klubaren desagerpenarekin San Pedroko lasterketa Irungo Txirrindulari Elkartearen eskuetan gelditu zen".



Parte-hartzea

Irungo jaien inguruan antolatzen den txirrindularitza proba honek lortutako errekonozimendu handiaren ondorioz, maila altuko kirolariek parte hartu izan dute bertan. Horien artean, Luis Ocaña Errandonea, Perurena, Nazabal, Andiano, Lasa, Manzaneque eta Pasarrodonaren neurriko txirrindulariek parte hartu zuten bertan. Luis Mari Ausán klubeko presidentea ohiak azaldu duenez, askotan San Pedroko lasterketaren datak Espainiako Txapelketaren koinziditu du eta, ondorioz, Espainiako selekzioan konbokatutako kirolariek ezin izan dira Irungo lasterketara hurbildu.

"San Miguel klubaren desagerpenarekin San Pedroko lasterketa Irungo Txirrindulari Elkartearen eskuetan gelditu zen"

Luis Mari Ausán, Irungo Txirrindulari Elkarteko lehen presidentea

Ibilbidearen aldaketa

Ibilbide luzeko proba honek hainbat ibilbide ezagutu ditu bere historian zehar, baina, beti Bidasoaldea eta Nafarroako Baztan inguruan. Luis Mari Ausan presidente ohiak adierazi du San Miguel kluba oraindik probaren antolatzaileria zen urteetan ibilbidea aldatu eta batzuetan ohikoa baino zailagoa izatera iritsi zela. Hain zuzen ere, behin, ibilbidearen zailtasuna dela medio, Kolon pasealekuko helmugara 7 txirrindulari soilik iritsi zirela gogoratzen du.

Azken urteetan, ordea, probaren ibilbide berdintsua errepikatu da, guztira, 125 kilometrotako distantziarekin. San Pedroko proba Irundik abiatua, Bidasoako ibaiaren ubidea jarraituz Nafarroako lurretan murgildu, Zigako gaina igo eta, Irungo erdigunera iritsi aurretik Er-laitzeko gain konplikatura igotzen zen orain arte.

Izan ere, aurten lasterketaren antolakuntzak ibilbidea zehazteko zailtasunak aurkitzen ari ditu Trafiko Zuzendaritzak ipinitako oztopoen ondorioz. Hala ere, lasterketaren egunerako dena prest edukitzea espero dute, data garrantzitsu honetan San Pedroko sari nagusiak kale egin ez dezan.

www.asisthogarbidaso.com
 Bero de Bidasoa Kalea 12 Behea, Irun
 San Pedro Kalea 15 Behea, Hondarribia

asistHOGAR
 Bidasoa

943043833

Adinekoen zaintza · Barneko eta kanpoko langileen agentzia · Etxeko zerbitzuak · Garbiketa eta mantentze-lanak

Jauzi Txapelketaren XXX. edizioa antolatu du Jaizubiako Hipikak beste urte batez jaietako programaren barnean



Argazkia: Jauzubiako Hipika

Jaizubia Hipika Elkarteak Jauzi Txapelketaren XXX. edizioa antolatu du San Pedro eta San Martzial jaietako programaren barnean. San Martzial Sari Nagusiko Finalak ekainaren 22an, larunbata, eta ekainaren 23an egingo dira Jaizubia Hipikaren eremuan. Aurten, nobedade moduan, proba ofizialez gain, Espainiako Poni Txapelketarako prestaketa probak egingo dira ere, beraz, aurreko urteetan baino parte hartzea handiagoa espero da aurtengo edizioan.

Aurtengoa ibilbide historiko zabala lortu duen Nagore Otañoren omenezko Jauzi Txapelketa honen XXX. edizioa izango da. Kirol proba honen antolakuntzan Euskal Hipika Federazioa, Gipuzkoako Hipika Federazioa eta Irungo Udalak laguntzen dute, enpresa irundarren laguntzarekin batera. Txapelketaren zuzendaritza Xabier Berrotaranen esku egongo da.

Jauzi Txapelketaren XXX. edizioan 100 amazona eta zaldizkoen parte-hartzea es-

pero da aurten, maila altuko Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Iparraldeko zaldizkoen arteko lehiarekin. Probarako izen ematea Euskal Hipika Federazioaren webgunearen bitartez egin da. Izen-ematea egiteko epea ekainaren 16ko arratsaldeko 20:00etan amaitu zen eta epez kanpoko izen ematea egiteak gain-kostu ekonomikoa izango du.

Ekainaren 22 eta 23 artean guztira pista 200 irtenaldi egingo direla kalkulatu da, 0,50 metrotarik 1,35 metrotako Sari Nagusiaren arteko proba ezberdinak egiteko. Proba guzti horiek gainera Gipuzkoako Txapelketaren barnean sartuko dira. Txapelketa egunez gainera, parte hartzaileek ekainaren 21ean txapelketako pista probatzeko aukera izango dute arratsaldeko 15:00etatik 19:00ak bitarte.

Probak Jaizubiako Hipikaren pistan egingo dira, hau da, duela urtebete inauguratutako pista berrian. Pistaren dimentsioengatik, 80x70 metro eta 6.000

metro karratu dauzkanez, momentu honetan Euskadin mailan dagoen pista handiena da klub irundarrarena.

Kirol probak goizeko 9:00etan hasiko dira bai ekainaren 22an zein ekainaren 23an. Publiko moduan probak ikusi ahal izateko sarbidea librea izango da, beraz, zaldien mundua maite duen edonork ikuskizunaz dohainik gozatzeko aukera izango du, txapelketan lehiatuko diren zaldikoez ibilbide garbi bat burutzeko trebetasuna eta abilezia nola tartekatzen dituzten ikusi ahal izateko.

Guztira 4.000€ aurrekontua izango du aurtengo Jauzi Txapelketak zaldizko garaileen artean sari moduan banatzeko. Aurrekontu hori instituzio ezberdinek eskaintako babesari esker lortu da, hala nola, Euskal Hipika Federazioa, Gipuzkoako Hipika Federazioa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Vertiz, Padd, Alkain, Sargia Jatetxea, Decathlon Irun, Bendetti botak, Caser, Allianz, Tranko, Imaz Ceca Team, Endanea, Glas,

Hiruzta eta Rubén Sanchez Hertz Klinika bezalako enpresa pribatuen laguntzarekin.

Txapelketaren iragana

Urtetik urtera errepikatzen diren edizioak zenbatuz gero, guztira, 30 urte daramatza Jaizubia Hipikak txapelketa hau antolatzen. San Martzialako Derbya Jaizubia Hipikak urtean zehar antolatutako txapelketa handiena eta bereziena da, bai probara gerturatzen diren zaldizkoen kopuruarengatik zein honelako txapelketa baten antolakuntzak dakarren lan zama handiarengatik. Hortaz gain, txapelketak sanmartzialako giroarekin bat egiten du jaietako bezperako egun horietan.

Urteak aurrera egin ahala, txapelketaren formatua aldatuz joan da. Izan ere, txapelketaren barnean hainbat urteetan zehar pistako oztopo-lasterketa eta pista zabalako probak tartekatzen ziren. Gaur egun, berriz, txapelketaren barneko proba guztiak pista berean gauzatzen dira pista zabalak aprobetxatuz eta txapelketaren esentzia mantenduz.

la
BIO
teka

Denda ekologikoa

Gorputz konpasaketaren analisiak

HEYONUT - Fruitu lehor-krema

Aukeratutako produktu ekologikoez

Produktu orienekin batera zure ECOBOXa hilabetero jasotzeko

bioteka.es



Beraketa 15, Irun



943 63 04 68

Toki Alai HH

TOKI ALAI EUSKARAZ BLAI BLAI



Denborapasak

Sanmartzialak

J P A Z Q Q H Z H A E H P N Y I V
 Z Y J L A C E U T L O Y T F A L B
 N W C I R P L Y K P Y Q F E C I W
 Z A Q B I S I C V A D V P N F I U
 E O E V B U C A G R G O V Z Y D G
 F S K E K I O K V G X U U P F G F
 I M K U X B O O T A M E I T Y Q C
 T O W O Z Y G R X T Y M A O W U K
 G X B G P T E B A A Y N T K T J I
 B B I I Z E C A P S A Y A S J E Y
 N O U L D S T T E L M X U K V O Q
 A B A N I K O A L E O Y B N N C Z
 U Y J J Y B H B A A W G C E C S V
 B U J D A W I O U O E A Y E O C I
 F L G N P D O T Y N A V O X M N L
 U K M C S J D A O Y E F R X F B G
 R E W E P E I I A W Q J U I Y G E

Alpargata, zapia, txapela, korbata, eskopeta,
 txilibito, abanikoa

		6			9	7		
				7			2	
8			5	3				
	7		4				3	
								5
	4		6				7	
					8	2		3
	3		7	9				
	5	4						

Euskaraz, Irunen barrena

Igual da, jo zala korneta

Bein, Burutaraneko baserriyak su artu zuen, eta biali zuten mutiko bat kalera bonberuan bila.

Allerrutik Xalbador bonberuan itxera galdetu zun:

- Xalbador emen bizi da?
- Bai, baño ezta itxian.
- Burutaranen sua dela, eta jotzeko korneta.
- Bañon eztago itxian...
- Igual da, jo zala korneta.

Irungo G.O.S., 62 urteko gizon kaletarrari jaso. Oraindik bizi den Xalbadorrek berak kontatu zion duela hogei ta hamarren bat urte. Zuzenean hartua. (1960-VI-15). (El Bidasoa, 1960-VII-24)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

El Pilar DBH2

NIRE LEKURIK KUTTUNENA : DONOSTIAKO BADIA



Badia eder hau ikusten dudanean lasaitasun izugarria sentitzen dut. Zergatik? Bada niretzat nire bigarren hirja delako; txikitatik joaten nintzen nire ama ikustera lanean zegoenean eta oroitzapen zoragarriak ditut han: parkea, karrusela, hondartza, aquariuma...


Joaten nintzen bakoitzean oso kontent jartzen nintzen eta poz itzela sentitzen nuen.

Lehenengo planoan kolore ezberdinetako landareak eta zuhaitzak ikusten dira. Hori igeldo mendia da eta hortik aterata dago argazkia. Uraren kolorea izugarri polita da baita hondartzaren forma ere. Horregatik La Concha dauka izena. Santa Clara izeneko irla, Ulla izeneko mendia (izugarritzko ikuspegiak daude goitik eta asko erlaxatzen du) eta erdian itsasontziak (inurriak dirudite argazkian, oso ñimiñoak ikusten direlako). Benetako paradisoa!

Atzeko planoan, eskuineko aldean eraikinak eta zuhaitz asko ikusten dira, eta gehiago sakontzen badugu, zenbait mendi tontor ikus ditzakegu.

Hau izan da nire Donostiako badiaaren autoblogeografia. Espero dut argazki honetan nik sentitzen dudun poza eta lasaitasuna zuri transmititzea. Besterik gabe, agurtzen zaitut.

Alba Pereira- El Pilar Ikastetxea. DBH 2. Maila



AG
Amaia Goena
Mediku Estomatologoa

www.amalagoenaortodoncia.com



ORTODONTZIAN ESPEZIALISTA

31 URTEKO
ESPERIENTZIA

- Haurrak - Ohiko ortodontzia
- Nerabeak - Ortodontzia ikustezina
- Helduak

TEKNIKA MODERNOENAK
Irripar polita bizitza guztirako!



Kolon Ibilbidea, 40 - IRUN - 943 61 47 45

Gaztegunea San Pedro eta San Martzialeen barnean gazteei zuzendutako ekintzen bilgunea izango da



Gaztegunea San Pedro eta San Martzialeko jaien barnean gazteentzat antolatutako ekintzen bilgunea izango da beste urte batez. Ekintzak ekainaren 25etik 27era egingo dira eta, aurreko urteetan bezala, gazteei zuzendutako espazio berezitu hau Istillaga plazan, Santiagoko Pilotaleku alboan, kokatuko da. Aurtengo egitarauaren barnean euskararen erabilera sustatzen duten ekintzen aldeko apustua argia egingo da.

Gazteguneari forma emateko, karpa erraldoi bat kokatuko da Santiago auzoko frontoia barnean. Bertan, hiriko gazteek programa anitz baten barnean bilduriko ekintzez gozatzeko aukera izango dute. Aurten, gainera, euskara eta euskararen erabilera ardatz izango duten 16 ekintza proposatzen dira guztira: Holi jaia, "Ro en la red" eta Iban Garcia youtuberrek zuzendutako Just Dance lehiaketa, Yincana eta Hesian bezalako taldeek osatzen duten musika jarduerak anitzen zerranda.

Gaztegunea zabalik egongo den egunetan zehar Twitter-eko @irun_informa eta Instagram sare sozialean GazteARTEanek duen profilerak espazio honen barnean egingo diren ekintzen bideoak eta argazkiak partekatuko direla jakinarazi da.

Laugarren edizioa

GazteGunea bezala ezaguna den espazioak bere laugarren edizioa beteko du aurten. Irungo jaien barruan espazio hau sortzeko proposamena 2016 urteko Aurrekontu Parte Hartzaileetako proposamen batetik jaio zen. Gaur egun, GazteARTEan antolatzailen gain, Gazteria eta Euskara arloek ere haien baliabideak koordinatzen dituzte espazio honen antolakuntzarako. Aurreko lau edizioen ostean, hiriko jaien barruan gazte giroa biltzeko gai den espazio erreferentean bihurtu da.

Ekainak 25, Gaztegunearen inaugurazioa

San Pedro eta San Martzialeko jaiak ofizialki ekainaren 23an asten badira ere, Gaztegunea espazioa ekainaren 25ean, asteartean, inauguratuko da, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara egingo den Holi jai koloretsu bategin. Jarraian Zuriñe Hidalgo abeslariak aurkeztutako Karaokearen txanda izango da eta, musikarekin jarraituz, 20:00etatik aurrera Dinbi-Danba Batukadak bere emanaldia eskainiko du. Gaueko 21:00etan, berriz, Hesian taldea igoko da Santiago frontoian kokatutako oholtzara. Azkenik, lehen egunari amaiera emateko DJ Markelinen Show-az gozatzeko aukera izango dute Gaztegunera hurbiltzen diren horiek.

Ekainak 26

Ekainaren 26ko ekitaldiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira Iban Garcia youtuberrak zuzendutako "Yancana Extreme Feat" izeneko ekintzarekin. Arratsaldeko 18:30etatik aurrera eta 20:00ak bitarte, Ro en la red eta Iban Garcia youtuberrek Just Dance txapelketa gidatuko dute. Jarraian, Bago!az 2019 saioko Jokin, Dánae, Andrea, Gabriela, Iker eta Andoniren emanaldia izango da Gaztegunean. Azkenik, gaueko 21:30etatik 00:00etara Iban Garcia diskofesta zuzentzeaz arduratuko da.

Ekainak 27, azken eguna

Gaztegunearen azken eguna ekintzez beterik egongo da ere. 17:00etatik 18:30etara Ainhoa Larrañaga eta Miren Arrieta Go!azen telesaileko aktoreek Meet&Greet ekintza zuzenduko dute. 18:15etan, berriz, NatsuMonk, Jay Weedow eta Aura feat Rubi & Fraan V.-ren kontzertuez gozatzeko aukera izango da. Ondoren, 19:15etatik 19:45etara Rushblac-K-ren txanda izango da eta, ostean, Hard GZ izango da eszenatokian ikusi ahal den hurrengo taldea. 20:45etatik aurrera DJ Rascak girotuko ditu Gazteguneko inguruak eta gaueko 21:15etatik 21:45etara IrunBreak taldeak break dance erakustaldia eskainiko du. Azkenik, 2019 urteko Gaztegunea behar bezala ixteaz arduratuko dira Txurru eta Oihan Vega DJak Gaztea diskofestarekin.

Neumáticos
txepetxa



NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



EKAINAK

23

8:00 MENDI IBILALDIA eta Jaia San Juan plazatik Aiako Harrietan barrena.
 9:00 Haurren XXXII. MARRAZKI ETA PINTURA LEHIAKETA Junkaleko plazatxoan.
 9:00 XLIV. Pil-pil-erako BAKAILO TXAPELKETA Urdanibia plazan
 16:30 Binakako XV. PUZZLE TXAPELKETA Erromes plazan.
 19:00 Ohiko San Juan ARBOLA jarriko da San Juan plazan eta TXISTULARIEN UDAL BANDAREN emanaldia.
 19:30 ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK Alberto Anguera plazatik San Juan plazara.
 20:45 AURRESKUA San Juan plazan Kemen dantza taldearen eskutik.
 21:30 San Pedro eta San Martzial JAIE-TAKO AGURRA.
 21:45 SAN JUAN SUA piztuko du alkateak.
 22:30 Urdanibia plazan LEFT HOOK taldearen kontzertua.
 24:00 ETS (En Tol Sarmiento) taldearen kontzertua.

24

11:30-13:30 eta 16:00-20:00 HAUR ATRAKZIOAK Zurtetik 14ra bitartekoentzat Katea auzoko pilotalekuan eta Behobiako futbol-zelaian.

Denborapasen emaitzak

J	P	A	Z	Q	Q	H	Z	H	A	E	H	P	N	Y	I	V
Z	Y	J	L	A	C	E	U	T	L	O	Y	T	F	A	L	B
N	W	C	I	R	P	L	Y	K	P	Y	Q	F	E	C	I	W
Z	A	Q	B	I	S	I	C	V	A	D	V	P	N	F	I	U
E	O	E	V	B	U	C	A	G	R	G	O	V	Z	Y	D	O
F	S	K	E	K	I	D	R	V	Q	X	D	U	P	F	O	F
I	M	K	U	X	B	O	O	T	A	M	E	I	T	Y	Q	G
T	O	W	O	Z	Y	G	R	X	T	Y	M	A	O	W	U	K
O	X	B	O	P	T	E	B	A	A	Y	N	T	X	T	J	I
B	B	I	J	Z	E	C	A	P	S	A	Y	A	S	J	E	Y
N	O	D	L	O	S	T	T	E	L	M	X	U	X	V	O	O
A	B	A	N	T	K	O	A	L	E	O	Y	S	N	M	O	Z
U	Y	J	J	Y	E	H	B	A	A	W	G	C	E	C	S	V
B	U	J	D	A	W	I	O	J	O	E	A	Y	E	O	C	I
F	L	G	H	P	D	O	T	Y	H	A	V	O	X	M	N	L
U	K	M	C	S	J	D	A	O	Y	I	F	H	X	I	B	O
R	E	W	E	P	E	I	I	A	W	O	J	U	I	Y	G	E

3	1	5	2	4	9	7	5	8
4	9	5	8	7	1	3	2	6
8	2	7	5	3	6	1	9	4
9	7	1	4	8	0	6	3	2
6	0	3	9	2	7	4	1	5
5	4	2	6	1	3	8	7	9
7	6	9	1	8	8	2	4	3
2	3	8	7	5	4	5	6	1
1	5	4	3	6	2	9	8	7

12:00 X. Mendibil PATATA TORTILLA LEHIAKETA Biteri plazan.
 18:00 2019ko SAN MARTZIAL GUNEA talentu irundarra, eszenatoki gainean Genaro Etxeandia plazatxoan.
 20:00 DANTZA: Eraiki Dantza Taldea Urdanibia plazan.

25

9:30 "Irun Hiria" BINAKAKO IBILBIDE NEURTUA. Luis Mariano Pentsiodunen elkartean irteera.
 11:30-13:30 eta 16:00-20:00 HAUR ATRAKZIOAK Belaskoenea eta Eguzkitza ikastetxeko jolastokian.
 18:00 PAILAZOAK: Fulanito eta Menganito pailazoen "Burutik Jota" ikuskizuna.
 19:30 Bidasoako ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK Junkaleko plazatxotik Erromes plazaraino.
 20:00 Tio Teronen Semeak taldearen IKUSKIZUNA San Juan plazan.

26

11:30-13:30 eta 16:00-20:00 HAUR ATRAKZIOAK Anakako Pedro Manuel de Aristegui y Petit plazan.
 14:00 BAZKARIA hirugarren adinekoen omenez Ficobako 3. pabilioian. Ondoren dantzaldia 18:00ak arte.
 19:00 Gaverdi FANFARREA Zabaltza plazan eta inguruetan.
 20:00 Hortzemuga Antzerki taldearen "Jule" IKUSKIZUNA San Juan plazan.

27

10:00 ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOA FAMILIAN Santiagotarrak elkartaren eskutik.
 11:30-13:30 eta 16:00-20:00 HAUR ATRAKZIOAK Anzaran plazan.
 18:00 IKUSKIZUN AKROBATIKOA BIZIKLETAN Urdanibia plazan Dirt Jump taldearen "Bike Show" ikuskizunarekin.
 19:00 Txorimaloak Soinu Taldearen BAKTUKADA Urdanibia plazaren inguruetan.
 19:00 Amaia KZan ZARZUELA "La rosa del azafrán".
 20:00 Trapu Zaharra konpainiaren "Señal" IKUSKIZUNA San Juan plazan.
 21:30 DANTZA: Kemen Dantza Taldea Urdanibia plazan.

28

18:30 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA Alberto Anguera plazatik San Juan plazara.
 23:00 MUSIKA: Flamenquito Latino taldearen emanaldia.
 23:30 MUSIKA: Jamaica Show Orkestraren emanaldia San Juan plazan.
 24:00 MUSIKA GIROA: Fiebre del Sábado Noche taldearen emanaldia San

Juan plaza inguruan.
 00:15 SU ARTIFIZIALAK Caballer Global Foc SI pirotekniaren eskutik Donostia kalean, "Castell de Foc" ikuskizunarekin.
 00:30 MUSIKA: Rosarioren kontzertuak Urdanibia plazan 2:30ak arte.
 1:00 MUSIKA GIROA: Euskorleans Dixie Band taldea San Juan plaza inguruan.

29

8:00 SAN PEDROKO DIANA "Irun Hiria" Musika Bandaren eta Diana Txingudiko Dultzaineroen eskutik.
 10:45 UDALBATZA San Juan plazatik irtengo da Junkaleko Andre Mariren Elizara "Irun Hiria" Musika Bandak eta Irungo Atsegiñako Erraldoiek lagunduta.
 11:00 MEZA NAGUSIA parrokan.
 12:00 AURRESKUA dantzatuko du Udalbatzak.
 12:30 SAN PEDROKO ohiko KONTZERTUA San Juan plazako arkupeetan "Irun Hiria" Musika Bandaren eskutik.
 21:00 KALEJIRA Txanaleta plazatik San Juan plazara "Irun Hiria" musika bandak eta Los Tranquilos fanfarreen eskutik.

30

22:30 DISKOFESTA 16 urte arteko gazteentzat Urdanibia plazan 24:00ak arte.
 23:00 MUSIKA Los Otros taldearen emanaldia Zabaltza plazan.
 00:20 DISKOFESTA 17 urtetik gorako gazteentzat Urdanibia plazan 3:00ak arte.

1

8:00 ABERE LEHIAKETA Urdanibia plazan.
 10:00 TRIKILARIAK Urdanibia plazan.
 11:30 BERTSOLARIAK Urdanibia plazan.
 12:00 HERRI KIROLAK Urdanibia plazan.
 13:00 Abere Lehiaketako SARI BANAKETA Urdanibia plazan.
 18:00 XXX. Fandango eta Arin-Arin TXAPELKETA Urdanibia plazan, ondoren, Herri Erromeria.
 18:00 Profesionalen ESKU PILOTA JAIALDIA Uranzu frontoian.
 22:45 SU ARTIFIZIALAK Focs D'Artifici Europlá SI pirotekniaren eskutik. "Sua-ren gogoeta" ikuskizuna.
 23:15 BAKARRIZKETA JAIALDIA: Tomas Garcia eta Edu Mutanteren emanaldia, Mario Simancasen aurkezpenarekin.



SUPER AMARA

**GORA
SAN
MARTZIAL!!**

